



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country



“EZAREN GUDAZ BAIETZA SORTUZ”¹

Lesbianak edonon:

Frankismoko ukaziotik, Trantsizioan hasitako aitorpenerantz.
(1977ko Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak)

Naia Azpiazu Garayalde

Historiako Gradua

Gradu Amaierako Lana

2018-2019 Ikasturtea

Tutorea: Miren Llona González

Historia Garaikideko Saila

¹ “Ezaren gudaz baietza sortuz” Xabier Leteren “Izarren hautsa” abestian agertzen den esaldia da. Xabier Lete, “Izarren hautsa”, *Kantatzera noazu*, 1976.

Laburpena

Lesbianen memoria historikoaren hutsunea betetzen jarraitzeko helburuarekin, lan honek bi ildo nagusi ditu. Alde batetik, frankismo garaiko (1939-1975) emakumeen sexualitate ereduetatik abiatuz, emakume lesbianen errealitatea ezagutzen saiatuko gara, haiek nabaritutako estigma eta ukazioaren sorburua, hots, ukapen horren arrazoiak azaleratuz. Bestetik, bigarren boladako feminismoaren baitan, trantsizio garaian (1975-1982) ospatutako Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak (1977) oinarri izanik, feministek sexualitatearen, lesbianismoaren eta batez ere azken hauen eta mugimendu feministaren harremanaren inguruan adierazitakoa jorratuko dugu. Hala, 70ko hamarkadan feminismoaren eta lesbianismoaren lotura maila zein zen ezagutzea izango dugu xedetzat, hau da, mugimendu feministaren baitan lesbianismoak zenbaterainoko entzutea izan zuen alegia.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4 or.
2. Emakume lesbianak frankismoan.....	5 or.
2.1. Emakumeen sexualitate eredua(k) frankismoan.....	6 or.
2.2. Lesbianak frankismoan: isiltasuna eta ukazioa.....	9 or.
3. Feminismoa eta Lesbianak: 1977ko Emakumeen Lehenengo Topaketak.....	13 or.
3.1. Sexualitatea.....	16 or.
3.2. Lesbianismoa.....	20 or.
3.3. Lesbianismoa eta feminismoa: (des)adostasunak.....	24 or.
4. Ondorioak.....	28 or.
5. Bibliografia.....	31 or.

1. Sarrera

2019an 40 urte bete dira frankismoak homosexualen aurkako borrokarako promulgatu zuen “Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren legea” despenalizatu zenetik. Ordutik, diktaduran gizon homosexualak, *gay*-ek, jasandako kontrol eta sufritutako jazarpenaren inguruan luze idatzi da, ukatutako errealitate honi merezi duen aitortpena emateko asmoz². Aitzitik, emakume lesbianen memoria historikoaren inguruan hutsune handi bat nabari izan da duela gutxira arte. Azken urteotan, lesbianen memoria historikoa eraikitzeke saiakerak egin badira ere, produkzio bibliografikoa eta honen inguruko ikerketak urriak dira.

Diktadura osteko demokraziarako bidean, trantsizio garaiaz ezaguna den aldi historikoan, ordura arte ezkutuan edo klandestinoki jarduten zeuden gizarte mugimenduen loratzea eman zen, 60ko hamarkadaz geroztiko mugimendu sozialen baitan, alegia. Besteak beste, langile mugimenduak, mugimendu ekologistak, askatasun sexualaren aldeko mugimenduak edo feminismoak egoera honen eragile berriak izan ziren. Mugimendu feministak, identifikatu gabeko zapalkuntza batetik abiatuta, teoria eta praktika uztartuz, nonahi erreproduzitzen zen patriarkatuaren aurka gudu egin zuen, sexualitate libre eta autonomoa borrokatu ardatz garrantzitsua izan zelarik. Patriarkatuaren aurkako gurutzada honen baitan, emakume lesbiana asko bildu ziren. Alabaina, azken hamarkadatan eztabaida piztu da mugimendu feministak lesbianen kausa eta ardurak bere egin, ala nolabait errefusatu ote zituztenaren inguruan.

Gauzak honela, nire jakin-mina piztu duten galderak anitzak dira; zer dago frankismoan biziraun zuten lesbianen memoria historikoaren hutsartean atzean, hots, zein da edo zeintzuk dira arrazoiak? Bigarren boladako mugimendu feministan non kokatu ziren lesbianak? Feministek aintzat hartu al zituzten lesbianak haien lehen aldarrikapenetan? Galdera edo hipotesi horiei erantzuna emateko saiakeran, lan honen ildo edo helburu

² Beste batzuen artean, frankismoan homosexualak sufritutako jazarpena hurrengo liburuek jorratzen dute: Arturo, Arnalte. *Redada de Violetas. La represión de los homosexuales durante el franquismo*. Madril: La esfera de los libros, 2003; Nathan, Báidez. *Vagos, maleantes... y homosexuales. La represión de los homosexuales durante el franquismo*. Batzelona: Carrasco, 2007; Fernando, Olmeda. *El látigo y la pluma. Homosexuales en la España de Franco*. Madril: Oberon, 2004.

nagusiak bi lirateke. Alde batetik, frankismo garaiko emakume lesbianen memoria historikoaren hutsune horretatik abiatuz, bazterketa edo omisio horren arrazoiak zeintzuk diren ulertzea, eta haien errealitatea argitara ekartzea da. Horretarako, frankismoak emakumeei inposatutako sexualitate eredu hertsitik abitatuta, lesbianen izatearen ukazioa azaltzen saiatuko gara.

Bestetik, diktaduraren amaieraren osteko trantsizio aldiaren baitan, mugimendu feministak lesbianengan izandako eragin, entzute eta harremana aditzea izango da xedea. Horretarako, gure lurraldera, Euskal Herrira, hurbilduko gara, 1977ko abenduan ospatutako Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketen bitartez, sexualitatearen, lesbianismoaren, eta feminismo eta lesbianismoaren arteko harremanaren inguruan mahaigaineratu zena jorratuz.

Beraz, lehen mailako iturria den topaketa hau ardatz izanik, bigarren mailako iturri bibliografikoen bidez, diskurtso historikoa eraikiko dugu. Hala, frankismoan emakume lesbianek pairatu zuten ezerezaren gudatik, diktadura ostean sortutako baietzerak, izatearen onarpenaren hasierara, helduko gara hurrengo orrialdeetan.

2. Emakume lesbianak frankismoan

Espainiako Gerra Zibilaren ostean ezarritako Francisco Francoren diktadura pertsonalak ia lau hamarkada iraun zuen (1939-1975). Honela, frankismoak autoritarismoan, nazional-katolizismoan, hierarkian, paternalismoan eta jazarpenean oinarritutako erregimen totalitario bat bideratu zuen. Helburua, debeku eta zentsuraren bidez, erresistentzia eta aurkakotasun oro desagitea eta gizarte zibilaren garapena oztopatzea izan zen, boterean bizirauteko asmoz³.

Eskema errepresibo hau eszenatoki izanik, lehen atal honetan frankismoko aktore sekundarioak, hau da emakumeak, eta emakumeei ezarritako, inposatutako errepresioa,

³ Raúl López Romo, *Del gueto a la calle. El movimiento gay y lesbiano en el País Vasco y Navarra, 1975-1983*, (Donostia-San Sebastián: Tercera Prensa, D.L., 2008), 34.

batez ere eredu sexualari dagokionean, aztertuko dugu. Bigarren mailako aktoreez gain, frankismoko eszenako figuranteetan zentratuko gara, hots, hitz egiteko aukerarik ez duten pertsonaiengan, ikuslegoarentzat ia ikusezinak diren horiengan: kasu honetan, frankismoko lesbianeiei eskainiko diogu fokua.

2.1. Emakumeen sexualitate eredu(k) frankismoan

Francisco Francoren diktaduraren testuinguru ilun hori, gizonezkoek ez ezik, zuzenean emakumeek sufritu zuten. II. Errepublikan (1933-1936) lortutako eskubide eta askatasunen -sexuen arteko berdintasun juridikoa, boto eskubidea, ezkontza zibila eta dibortzioa, emakumeen lanaren babesa...-, eta feminitatearen arketipo modernizatzaileen aurrean, frankismoak nagusiki Berrezarkuntzatik zetorren “Ezkondutuen Perfektuaren” ideala, hau da, emazte, ama eta etxeko andrea den emakume eredu tradizionala, berreskuratu nahi izan zuen⁴.

Horretarako, kontrol formal instituzional eta legalak, hala nola, *Fuero del Trabajo*-k eta batez ere Kodigo Penalak, arestian lortutako eskubideak deuseztatuz, emakumeak betiereko adin txikitasun eta gizonarekiko menpekotasun osora -emozional eta ekonomikora ere- kondenatu zituen. Gutxi balitz, espezifikoki emakumezkoiei leporatzen zizkieten delituek “*delitos femeninos*”, besteak beste adulterioa, prostituzioa eta infantizidioa (abortua), emakumeak pertsekutatu eta jazarri zituzten frankismoan zehar⁵.

Kontrol formalari hertsiki interrelazionatuta dagoen kontrol sozial informala gehitu behar zaio. Izan ere, erregimenaren zutarriz ziren Eliza Katolikoak eta Falangeko Emakume Sekzioak monopolizatutako moral eta hezkuntzak emakumearen “berezko” rol edo egitekoa barnerarazi zituzten: ezkontza, amatasuna eta domestizidatea.

⁴ Mary Nash, *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*. (Madril: Alianza, 2004), 41.

⁵ Dolores Juliano, “Tiempo de Cuaresma. Modelos de sexualidad femenina bajo el Franquismo”, in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, (ed.) Raquel Osborne (Madril: Fundamentos, 2012), 37.

“*El niño mirará al mundo, la niña mirará al Hogar*”⁶ Falangeko Emakumeen Sekzioak haurren hezkuntzaren inguruan helarazitako esaldiak laburtzen du genero bakoitzari zegokion esfera; publikoa -politika, hiritartasuna, kultura...- gizonezkoentzat, eta esfera pribatua berriz, hau da, domestizidatea (etxekotasuna) emakumeentzat, haien esparru “naturala” alegia.

Hala, “Etxeko Aingeruaren” ideiarenean, ooren gaintik emazte eta amak ziren emakumeek familiaren eta etxearen zaindari bertutetsuak izateko, abnegazioa, sakrifizioa, zintzotasuna, apaltasuna, esanekotasuna eta menpekotasuna praktikatu behar zuten⁷. Are gehiago, genero-eredu hau gizarteak eta familiak, nahiz ekoizpen artistiko-literarioak -eleberri erromantiko eta arrosak- eragindako presioak indartu zuen, haiengandik espero zena bete ezean jasoko zuten erantzuna zela eta: “*el qué dirán*”⁸. Bestalde, emakumea egoera subalternoan zegoen eredu patriarkal honetan, haien autonomia sexuala ukatu edo gutxien zen. Empar Pinedaren hitzetan:

“Ezin dugu ahaztu ni neu gutxienez Frankismoan hezi nindutela, edo gaizki hezi hobeto esanda. Hau da, emakumeontzat sexualitaterik ez zegoela irakatsi zidaten. (...) Bazirudien emakumeontzat sexua ez zela interesgarria. Sexuaz, antza, gizonak baino ez ziren ardurutzen. Iragarki batek hala zioen: “koñaka bezala, gizonentzat egina”⁹.

Gauzak honela, emakumearen jarduera sexualak, betiere ezkontza katoliko eta heterosexualpean, soilik ugalkortasunari ekiteko burutzen ziren. Azpimarragarria da XIX. mendetik nagusi zen diskurtso zientifiko-medikoak emakumearen gorputzaren oinarria erreprodukziora mugatu zuela, sexuen arteko ezberdintasun sexualaren naturalizazio erradikala azpimarratuz¹⁰. Eta noski, autonomia sexuala ukatuz.

⁶ Francisca Bohigas Gavilanes, “Orientación Pedagógica”, *Consigna, Revista pedagógica de la Sección Femenina de F.E.T y de las J.O.N.S.*, 22 zbk. (1942 urtarrila).

⁷ Raquel Osborne, “Introducción” in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, (ed.) Raquel Osborne (Madril: Fundamentos, 2012), 10.

⁸ Dolores Juliano, “Tiempo de cuaresma...”, 37.

⁹ Empar Pineda (Hernani, 1944) lesbiana feminista aktibista garrantzitsua da. Bera izan zen Espainiako telebistan lesbiana bezala agertu zen lehen emakumea, 1980. urtean. Inmaculada Mujika, et al., *Begirada ausartak. Gay eta Lesbianen bizitza eta maitasun kontaktak Frankismoan eta Trantsizioan Euskal Herrian*, (Bilbo: Aldarte, 2014), 39.

¹⁰ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...* 33.

Sexua, linguistikoki hitz eginda ere, gai tabua zen. 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketetan adierazi zenari jarraiki, hezkuntza katolikoak sexua jarduera zikin eta lotsagarri bat balitz bezala aurkezten zuen. Katolizismoaren mandamentu sakratuen arabera, jarduera lizun edota pentsamendu nahiz desira likitsik izatea debekatuta zegoen, bekatua zen (6 eta 9. mandamentuak). Gutxi balitz, hezkuntza katolikoan gorputzaren jarduera sexualen inguruko informazio oro ekiditen zen. Hori dela eta, sexualitatearen inguruan zegoen informazioa nahasgarria zen: haurrak Paristik ekartzen ziren, gizakien ugalketa landareen parekoa zen, eta Ama Birjinak Espiritu Santuaren graziaz sortu zuen... *“todo eran misterios”*¹¹.

Beraz, bekatuaren izenean, emakumeek ez zuten plazer sexuala sentitu behar, hura zer zen ere ez zuten ezagutzen. Betiere gizonaren erabakia zen sexu-harremanak noiz eta nola izan. Sekzio femeninoak honela zioen:

*“(…) Es importante recordar tus obligaciones matrimoniales (...) Si tu marido sugiere la unidad, entonces accede humildemente, teniendo siempre en cuenta que su satisfacción es más importante que la de su mujer. Cuando alcance el momento culminante, un pequeño gemido por tu parte es suficiente para indicar cualquier goce que hayas podido experimentar”*¹².

Ezkontza esparrutik kanpo, emakumeen sexualitate oro arbuiaurik zegoen. Mojek, kastitate botoari jarraiki, sexugabeko eredia irudikatzen zuten, eta ezkongai edo ezkongabeen zeregina ezkondu ezean purutasun eta birjintasuna mantentzea zen, beste hitzetan, bertutea. Erregimena nahiz orokorrean gizartea oso zorrotzak ziren eredutik aldentzen ziren emakumeekin. Prostitutek, senargabeko amek, eta ohaideek *mujeres caídas, malas madres, mujeres con mala fama, promiscuas...* bezalako estigmak nozitu behar izan zituzten¹³. Aldi oro susmopean zeuden indibiduoak ziren.

¹¹ Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak, “Sexualidad Femenina”, in *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak*, (1977), 10.

¹² Sección Femenina de la Falange Española y de las JONS, *Economía doméstica para bachillerato y magisterio*, 1958.

¹³ Dolores Juliano, “Tiempo de cuaresma...”, 37-38.

Bereizketa, gutxiespena, eta segregazio sozial eta familiarra eguneroko ogia izan ziren emakume haientzat. Gainera, aipatu moduan, haietako askok gaztigu legalak, haurren tutoretza kentzea eta uxorizidioa, pairatu zituzten besteak beste. Dena dela, erregimenaren baitan gizarteko emakume “bertutetsu” nahiz “maltzurak” heterosexualak ziren edo heterosexualtzat hartzen ziren¹⁴.

Zer gertatzen zen sexualitate disidenteekin, hau da, emakume-eredu honetan non kokatzen emakume lesbianak? Arautik kanpo egonik, zergatik ez zen oro har haiei homosexualen aurkako legeetan erreferentzia egiten?

2.2. Lesbianak frankismoan: isiltasuna eta ukazioa

Frankismoak suposatzen zuen heterosexualitatearen diktaduran, ez zegoen beste identitate sexu-generoentzako lekurik¹⁵. Frankismoan beraz, homosexualitatea delituzko jarduera kontsideratzen zen, baina lege-zigorak gizonei bakarrik ezartzen zitzaizkien. 1954tik aurrera, “*Ley de Vagos y Maleantes*”-en homosexualitatea jazarri beharreko delituekin batera txertatu zen, eta 1970ean “arriskutsuak” ziren indibiduoak urruntzeko, kontrolatzeko eta “birgaizteko”, hots, sendatzeko, “Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren legea” promulgatu zen, aurrekoaren oinordeko zuzena. Lege honek milaka gizon esetsi zituen, izan ere, haietako askok espetxe konbentzional edo Huelva eta Cacereseko errehabilitazio zentroetan bukatu zuten. Bertan, haien “gaixotasuna” sendatzeko terapia higuingarriak sufritu zituztelarik: deskarga elektrikoak eta gorakoak. Aitzitik, lege hau indarrean egon zen urteetan (1979an indargabetu zen) emakume bat soilik espetxeratu zuten homosexualitate kondizioa zela eta¹⁶.

Beraz, arestian egindako galderaren harira, emakume homosexualak legalki edo formalki ez zigortzearen atzean ezin zen Espainia frankistan lesbianismorik, eta beraz

¹⁴ Ibidem, 38-39.

¹⁵ Raquel Osborne, “Introducción”, 13.

¹⁶ Raúl López Romo, *Del gueto a la calle...*, 35-38.

lesbianarik, ez zegoela izan¹⁷. Hain zuzen ere, Serrano Vicéns sexologo espainiarrak *La sexualidad femenina: una investigación estadística y psíquica directa*¹⁸ lanean bildutako ikerketa aitzindariaren emaitzek ondorioztatu zuten frankismoan ematen ziren praktika lesbikoak ez zirela uste ziren bezain urriak. 1.417 elkarrizketatuen %35k esperientzia homosexualen bat izan zuela aitortu zuen, eta ezkongabeen %66,5k lagun edo ezagun batekiko sexu-grina sentitu zuen. Besteak beste, laguntasuna galtzeko beldurrak, lotsak eta ardura moralak zirela eta erreprimitzen zuten haien desira¹⁹.

Beraz, zergatik ez zuen Frankismoak lesbianekin homosexual gizonzkoiei eta *mujeres caídas-i* burututako laidoztapen eta jazarpen estrategia jarraitu? Zergatik hobetsi zuten sexualitate modu hau alde batera utzi, ezereztu edo zuzenean ukatzea?

Raquel Osbornek eta Dolores Julianok dioten moduan: “*El lesbianismo oficialmente no existía, y no se puede hablar de lo que no existe*”²⁰. Jakina da, antolamendu sozialaren oinarriak, orduan eta egun, genero-rolen banaketan oinarritzen zirela, eta haien funtsa emakumeek gizonetikiko zuten menpekotasuna, subordinazioa zela. Lesbianak, esleitutako ereditutik, hots, ordena maskulintotik kanpo zeuden heinean, haien izatea bera onartzeak, ordena horrek aukera guztiak biltzen ez zituela aitortzea suposatzen zuen²¹.

Haien existentzia onartzeak, emakumeek inizatiba sexualak zituztela onestea zekarren: pasibotasun sexual femeninoa zalantzan jartzen zen, aktibotasunaren bidez. Are gehiago, sexualitatea zehazteko beste modu hau aitortuz, ugalkortasunari lotutako eredu heteropatriarkalaren hegemonia kolokan jartzen zen. Ondorioz, ezarritako ordena sozial eta moral patriarkala mantentzeko asmoz, eta haren gaitasun subertsiboa geldiarazteko,

¹⁷ Dolores Juliano eta Raquel Osborne, “Prólogo: Las estrategias de la negación. Desentenderse de las entendidas”, in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, (koord.) Raquel Platero (Bartzelona: Melusina, 2008), 9.

¹⁸ Serrano Vicéns-ek ikerketa berritzaile hau 1961an amaitu bazuen ere, arrazoi ekonomikoak eta “beste kausa” -erregimenaren zentsura ziurrenik- zela eta ez zuen 1971. urtera arte argitaratzeko aukerarik izan. Beatriz Celaya, “El discurso médico del franquismo: persistencia de un modelo sexualizado de mujer” in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, (ed.) Raquel Osborne (Madril: Fundamentos, 2012), 206.

¹⁹ Jordi M. Monferrer, “Serrano Vicéns: el Kinsey español” in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, (ed.) Raquel Osborne (Madril: Fundamentos, 2012), 227-228.

²⁰ Dolores Juliano eta Raquel Osborne: “Prólogo: Las estrategias de la negación...”, 7.

²¹ *Ibidem*, 16.

“aukera” horren ukazioa zen erregimenak erabili zuen baliabide eraginkorrena²². Asko jota, lesbianismoa familiak edo sistema mediko-psikologikoak sendatu beharreko patologia bat zela adierazten zen. Bestela, zuzenean hutsaldu egiten zen, hau da, gizonentzat, emakumeen arteko harremanak lagun arteko gauza bat ziren heinean, arriskurik suposatzen ez zuten zerbait balitz bezala gutxiesten zen²³.

Dena dela, lesbianek genero-rolak zalantzan jartzearen “beldurra” eta haiekiko patologizazioaren adierazle da Gregorio Marañón espainiar doktore famatuak frankismoa baino lehen, 1930an esandakoa: *“Tenemos así una mujer a un paso siempre de convertirse en una lesbiana psicópata si no pertenece alejada de las “actividades de sello viril” mientras que la mujer que es madre o desea serlo, no sufre peligro de convertirse en invertida”*²⁴.

Hortaz, lesbianismoak, emakumeengandik espero zena, senar-emazteen arteko batasuna, amatasuna eta etxekotasuna, asaldatu edo iraultzen zuen heinean, aukera sexualetik haratago doan zerbait suposatzen zuen: gizon eta emakumeen biko ordena edo araua urratzen zuten, eta beraz genero-rolen eta sexualitatearen zalantzan jartzea burutu²⁵.

Honen aurrean ezarritako ukapen erradikalak beraz, isiltasun mantu zabal bat ezarri zuen Frankismoko gizartearen baitan.

Ezeztapen eta ikusezintasun testuinguru horretan, aitzitik, ustean ikusezinak ziren emakume lesbianak bazeuden, ahal zuten moduan bizirauten. Gehiengoak, beldurrak eta moralak, nahiz gaixotasuna eta heriozko bekatua zenaren estigmak paralizaturik, sentimenduak erreprimitzen eta haien izaera ukatzeko ahalegina egin zuen. Beste batzuek ordea, haien testuinguruak lagunduta “izena jartzeko gai ez ziren” egoera hura bizitzeko, klandestinitatean bazen ere, aukera izan zuten²⁶. Matilde Albarracín Sotok azpimarratzen du frankismoko lesbianen “bizi-iraupenean” funtsezkoa faktore ekonomikoa izan zela. Bere aburuz, familia dirudunetako kideak zirenek ala baliabide

²² Ibidem, 10.

²³ Ibidem, 7.

²⁴ Beatriz Celaya, “El discurso médico...”, 199. (Azpimarraketa nirea da).

²⁵ Raquel Platero “Introducción: La construcción del sujeto lésbico” in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, (koord.) Raquel Platero (Bartzelona: Melusina, 2008), 21.

²⁶ Raquel Osborne, “Introducción”, 15-16.

ekonomikoak eta beren espazio pribatua, hau da, etxebizitza propioa zutenek, haien lesbianismoa bizitzeko aukera eta baldintza hobek izan zituzten. Honela, emakume hauek festa eta jardueren bitartez, edo beraien etxebizitzak utziz, beste emakumeei lagundu zieten, eta soilik gutxi batzuen eskuetan zegoen kultura lesbikoa -hala nola Virginia Woolf idazlearen literatura-zabaltzen lagundu zuten baita ere²⁷.

Lesbiana guzti hauek, dirudun eta ez dirudunek, ia erreferentziarik gabe, ezizenak, bizitza bikoitzak, lengoia propioa *-libreras, tebeos...*- eta haien arteko begiradak baliatuz, *asuntoa* -garaian esaten zioten moduan-, kamuflatzea lortu zuten. Hala, batez ere esfera pribatuan, hots, sekretupean, emakume lesbianen sareak sortu zituzten. Elkar ezagutzeaz gain, “libre” sentitzeko esparruak eratu zituztelarik²⁸.

Empar Pinedak hala dio 1964an Hernanitik Madridera joan eta bertan lehen aldiz lagun artean lesbiana deitu ziotenaren inguruan:

“Egiari zor, egundoko lasaitasuna hartu nuen, egundokoa. Azkenean baten batek izena jarri zion eta nire baitako grina haiei guztiei. Urte haietan (1964) ez zegoen gaiari buruzko libururik, ez gutxienez nire eskura. Jakin ere ez nekien lesbiana hitza bazenik ere (...) eta jakina, hitza ez banuen ezagutzen are gutxiago lesbianak izan zitezkeen neskak”²⁹.

Ukazioak lesbianeiei kamuflatzeko aukera zabalagoa emanda ere, errealitate sozial honen ezeztapena suposatu zuen. Ikusezintasunak, funtsean, erreferenteen hutsunea sortzen du, eta horrek, identifikatzea zailtzen eta isolamendua indartzen ditu. Honenbestez, identitate kolektiboen sorkuntza eta ondorioz mobilizazio kolektiborako sareak hedatzea eragozten duelarik³⁰. Honekin batera, Mary Nashen dioen moduan: *“El nombramiento de las personas y de los colectivos sociales es decisivo en la construcción de las creencias culturales compartidas”³¹.*

²⁷ Matilde Albarracín Soto, “Libreras y tebeos: las voces de las lesbianas mayores” in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, (koord.) Raquel Platero (Bartzelona: Melusina, 2008), 211.

²⁸ Matilde Albarracín Soto, “Libreras y tebeos...”, 193.

²⁹ Inmaculada Mujika, et al., *Begirada ausartak...*, 32.

³⁰ José Ignacio Pichardo, “Lesbianas o no” in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, (koord.) Raquel Platero (Bartzelona: Melusina, 2008), 131.

³¹ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...*, 165.

Ikusi dugun bezala, lesbianek orokorrean ez zuten lesbiana hitza ezagutzen. Ez ziren ustean haiek indibidualki, bakarrik, sentitzen zutenari izendapen bat emateko gai. Izena jartzea bera, eta horrekin batera haiek bezalako emakumeak zeudela jakiteak askorentzat askapen sentsazio bat suposatu zuen. Izendatzeko gai baziren, existitzen ziren.

Adrienne Richek adierazitakoari jarraiki: *“En un mundo donde el lenguaje y el nombrar las cosas es poder, el silencio es opresión y violencia”*³², hurrengo hamarkadetako erronken hasiera hura izango zen: ezaren gudatik baietza sortzea, lesbianei ukatutako izatea aitortu, eta beti aurrera joatea.

3. Feminismoa eta Lesbianak: 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak

*“EMAKUMEA (...) lesbiana zarelako existitzen ez duzuna... ZATOZ”*³³

Ikusi dugun moduan, diktadura frankista hainbat baliabideren bidez gizon eta emakume eredu zehatz bat inposatzen ahalegindu zen. Gizonei esparru publikoa eta emakumearekiko nagusitasuna bermatzen saiatu zen bitartean, emakumeak esparru pribatura zokoratu zituen, menpekotasunean murgildu eta haien garapen eta autonomia ukatuz, hau da, *“rescatar así, a la mujer del taller y la fábrica, y devolverla al hogar”*³⁴. Lesbianak, genero-rolen eskema honen subertsioa suposatzen zuten heinean, ereditik kanpo zeuden, ez ziren kontenplatu ere egiten.

Aitzitik, ia berrogei urte indarrean egon zen erregimen hau ez zen guztiz zurruna edo hertsia izan. Diktadurapean bizitzeak eragindako berezitasun eta batez ere muga guztiekin ere -jazarpena, askatasun eza, hertsapena-, Espainiako, eta Hego Euskal Herriko gizarteak Mendebaldean 60ko hamarkadan sortutako mugimendu sozial berriekin klandestinoki bat egin zuten. Beraz, diktadorearen heriotzaren ostean (1975),

³² Dolores Juliano eta Raquel Osborne, “Prólogo: Las estrategias de la negación...”, 16.

³³ Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketetako panfletoan bildutako esaldia, 1977ko abendua.

³⁴ Empar Pineda “Mi pequeña historia sobre el lesbianismo organizado en el movimiento feminista de nuestro país” in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, (koord.) Raquel Platero (Bartzelona: Melusina, 2008), 31.

diktaduratik demokraziarako bidean, trantsizio deituriko aldi historiko berrian (1975-1982), mugimendu hauek loratu egin ziren. Estatuan, besteak-beste langile mugimenduekin, mugimendu ekologistekin, ikasle mugimenduekin edo mugimendu nazionalistekin batera bigarren boladako feminismoa edo feminismo berria garatu zen, non mugimendu propio bat garatzeke zeuden emakume lesbiana askok parte hartu zuten.

Bigarren boladako feminismoa, esan bezala, 60ko hamarkadatik aurrera Mendebaldean garatu eta zabaldu zen mugimendu plural eta heterogeneoa izan zen, non planteamendu eta ikuspuntu anitz bildu ziren. Mugimendu dibertso hau “identifikatu gabeko” zapalkuntza bati kontra egiteko helburutik sortu zen, eta honen bidez borrokarako eredu eta antolamendu forma berriak ezarri ziren³⁵.

Testuinguru honetan, 1949an Simone de Beauvoirrek argitaratutako *Bigarren Sexua* mugimenduko marko teorikorako eta praktikorako oinarriak ezarri zituen liburua izan zen³⁶. Bertan, pentsalari frantsesak, historian zehar emakumeek izandako rola, kondizio femeninoa eta emakumeen menpekotasun prozesuak aztertu ondoren, emakume izatea eraikuntza sozial bat zela adierazi zuen, hots, “emakume egiten gara, ez jaio”. Gauzak honela, gizona gizakia eta araua, gauza guztien neurritzat hartzen zen heinean, emakumea “bestea”, “bigarren sexua” zen, subalterno edo menpektoa, entitaterik ez zuena, eta beraz, subjektu eta arau izendatzeko gaitasun barik zegoena. De Beauvoirrek emakumeen pasibotasuna eta menpekotasuna irauliko zituen ordena sozial berri bat sortzeko beharra adierazi zuen, emakumeak ere arau bilakatzeko, “bat” izateko, “bestearen” ordez³⁷.

Bigarren Sexuaz gain, 60ko hamarkadaren amaieratik, eta 70ko hamarkadaren hasieratik teoria feministaren aspektu ezberdinak lantzen zituzten argitalpenak sortu ziren, Estatura eta Euskal Herrira heldu zirelarik. Beste askoren artean, Juliet Mitchell, Kate Millet, eta Adrienne Rich nabarmendu ziren. Hala, hitzak ekintza bihurtu, eta ekintzak hitz bilakatzearen dinamikaren baitan, kontzientziazio sare informalak sortu

³⁵ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...*, 166.

³⁶ *Ibidem*, 170.

³⁷ *Ibidem*, 168-169.

ziren, konfiantza, elkartrukearen eta elkarkidetzatik identifikatu gabeko errepresio hura izendatzeko, honela identitate kolektibo bat eratuz, eta beraz emakumeen jazarpenari erantzunak emateko. Era honetan, aspektu indibidual, pertsonal eta pribatuak, kolektibo eta publikoekin uztartu zituzten, “Pertsonala Politikoa da” goiburupean³⁸. Sistema patriarkala, bizitzako aspektu guztietan erreproduzitzen zena -lana, hezkuntza, genero-rolak, sexualitatea...-, irauli behar zen eraikuntza soziokulturala zenaren kontzientzia hartuz joan ziren.

Beste aldarrikapen askoren artean, Espainiaren kasuan frankismoak bideratutako nazional-katolizismoaren bekatu eta purutasun diskurtsoaren aurrean, emakumearen gorputzaren autonomia sexuala eta erabakitze askatasuna feminismo berriaren ardatz garrantzitsu bilakatu ziren³⁹. Honez gain, ikusiko dugun moduan, nagusi zen sexualitate-ereduaren inguruan hausnartu eta berrikusketarako tresnak bultzatu ziren. Hala, lesbiana askok feminismoan erantzunak aurkitu zituzten, Empar Pinedak esaterako:

“Con la irrupción del feminismo en nuestras vidas nos fueron llegando las claves para entender que lo nuestro [lesbianismo] no era nada raro ni antinatural; que no teníamos por qué avergonzarnos, ni ocultarlo; (...) no era una cosa rara, ni una desviación, ni una enfermedad que tenían que curar los psiquiatras. Que era, en definitiva, normal. (...) Tan normal como que existía una sexualidad femenina propia, específica, que no había que confundir con la maternidad, ni con “estar siempre dispuestas”⁴⁰.

Diskurtso berriak ahalik eta emakume gehiago biltzeko, kontzientzia sortzeko, nahiz tabuak eta mitoak uxatzeko, bilera eta topaketa ugari antolatu zituzten feministek. Estatu mailan ez ezik, Madrileko I. Topaketa Feministak (1975) ala Kataluniako *Primeres Jornades Catalanes de La Dona* (1976) -non mugimendu lesbiana feministak parte hartu zuen- kasu, Hego Euskal Herrian aztergai ditugun Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak ospatu ziren 1977ko abenduaren 8 eta 11 bitartean, Leioan.

³⁸ Ibidem, 176.

³⁹ Ibidem, 219.

⁴⁰ Empar Pineda “Mi pequeña historia...”, 32.

Sexualitatea, patriarkatua, lana, hautabide eta proposamenak jardunaldietan banatu ziren Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketa hauetan feminismoaren korrante eta ikuspuntu, jatorri, klase sozial, ogibide, adin eta egoera zibil anitzeko 3.000 emakume inguru bildu ziren⁴¹. “Pertsonala Politikoa da” goiburuari jarraiki, topaketen helburu nagusia emakume anitzen iritzi, bizipen eta esperientziak jasotzea zen, hau da: *“elkarrekin egotea, gure indarra sentitzea, zerk batzen gaituen jakitea, zuk, eta nik nola sentitzen dugun (...) gure zapalkuntza eta marjinazioari buruz hitz egitea”*⁴².

Atal honetan, “Sexualitatea” jardunaldian eztabaidatutako atal ezberdinetan zentratuz, lesbianek topaketa hauetan izan zuten lekua eta entzutea aztertuko dugu, emakumeen sexualitatearen eta lesbianismoaren inguruan adierazten dena azalduz. Hau bide izanik, 70ko hamarkadan lesbianismoaren eta feminismoaren harremana edo elkartasuna norainokoa izan zen hautematen saiatuko gara, azkenik, topaketa honetan adierazitakoak epe laburrean lesbianengan izandako erreakzio eta ondorioak argitara ekarriz.

3.1. Sexualitatea

Arestian aipatu moduan, Estatuan, eta Euskal Herri mailan, 70ko hamarkadako feminismoaren aldarrikapen garrantzitsuenetakoak sexualitatearen ingurukoak izan ziren. Emakumeei inposatutako sexualitate ereduaren aurka, gorputzaren autonomia sexuala nahiz horren inguruan maila eta arlo guztietan erabakitze askatasuna errebindikatzeko helburutzat izan zuten. Diktadurako azken urteetatik aurrera atzerritik heldutako “iraultza sexuala” gizartean barneratzen hasia bazen ere, feministek tinko errotuta zeuden balore tradizionalei aurre egin behar izan zioten.

Honi jarraiki, 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketetako estreinako jardunaldia sexualitatearen nondik-norakoei eskaini zen, masturbazioa eta auto-esplorazio bidezko auto-ezagutzaren, antisorgailuen, abortuaren eta orientazio

⁴¹ “Datos de la encuesta realizada en las jornadas de la mujer en Euskadi” in *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II*, (1977), 131.

⁴² *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak*, (1977), 1.

sexualen inguruan jardun zelarik, besteak beste. Frankismoak suposatutako garizuma sexualaren aurrean, feministek sexualitate aske eta pareko bat aldarrikatu zuten. Aurreko erregimenean ukatutako sexualitatearen inguruan hitz egitearekin, izendatzearekin soilik aske sentiarazten zirela adierazi zuten, ordura arte ezagutzen ez zuten haien nortasun edo izateko aspektu bat, sexualitatea, mahaigaineratzen ari ziren heinean. Honekin batera, sexualitatearen baitan faktore fisiko, psikiko, afektibo, eta politikoak zeudela azpimarratu zuten⁴³.

1970. urtean, Kate Milletek feminismo berriaren zutarrietako bat bilakatu zen *Política Sexual* liburuan nabarmendu zuen gizon-emakumeen arteko harreman sexualak dominazioan eta ia hautemangarria ez zen botere-harreman politikoen baitan zeudela. Honela, patriarkatuaren eta gizonen nagusitasunaren funtzionamenduak bizirauteko, sexualitatea funtsezko aspektu politikoa zela azaldu zuen: “*el sexo reviste un carácter político que, las mayoría de las veces, suele pasar inadvertido*”⁴⁴.

Honen harira, topaketetan, gizakiak sortutako familiaren instituzioaz -produkzio eta erreprodukzio unitate bezala ulertua- jardun zuten. Hau da, patriarkatuaren ordena mundialean, gizona esparru publikora, produkziara, hots, pentsatu, sortu nahiz mundua gidatu eta eraldatzera, bideratuta zegoela adierazi zuten. Emakumea ordea, interes maskulinoari erantzuteko erreprodukzio inposatuaren bidez, seme-alabak izanez eta ondorengoei balio hauek transmitituz, hau da, eredu hori bermatzeaz arduratuko zen: “*Nosotras tenemos hijos porque es nuestra obligación darles hijos*”⁴⁵. Hau honela izateko, aurretik aipatutako “*delitos femeninos*” delakoek, antisorgailuen debekuak, eta noski, frankismoan zehar uztartutako uste orokorrak eredu hau babestu eta bermatu zuten. Errepresio eta kontrol honen kontra, emakumeen zentzua amatasunak betetzen zuenaren ustearen aurka azaldu ziren topaketako feministak.

Amatasunaren diktaduraren aurrean, eta “sexualitatea = birsorkuntza” eskemari kritika eginez, haien gorputzaren, eta ondorioz amatasunaren inguruan erabakitzeke eskubidearen alde egin zuten. Hala, emakumeen antisorgailuen eta abortuaren

⁴³ “Sexualidad Femenina”, in *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II*, (1977), 9.

⁴⁴ Kate Millet, *Política Sexual* (Madril: Cátedra, 1995 [1971]), 27.

⁴⁵ “Sexualidad femenina”, in *Euskadiko...* 9.

legalizazioaren alde agertu ziren. Aitzitik, azken hauek patriarkatuaren ondorio zirenaren ustea erakutsi zuten: *“son medidas que no cuestionan en realidad las relaciones sexuales imperantes, que son, en la mayoría de los casos, frustrantes y castradoras, sobre todo para la mujer”*⁴⁶. Hau da, antisorgailuak, eta batez ere abortua emakumearen aurkako eraso bortitzak zirela uste zuten. Arazo bati erantzuna emateko funtsezkoak, baina berrikusi beharrekoak. Abortoa, beraz, luze eztabaidatu zen gaia izan zen.

Esan dugun moduan, feministek nagusi zen eredu sexuala zapaltzailatzat zuten. Emakumeen sexualitate eredu, amatasunera bideratuta egoteaz gain, soilik koitora eta gizonen gozamenera bideratuta zegoela konturatu ziren, honela, emakumeen sexualitatea ukatzen zelarik. “Koitozentrismoaren” aurrean, emakumeen sexualitatearen interpretazio berria burutzen ari zirela aditzera eman zuten. Horretaz gain, gizartearen ordena urratzea ekiditeko eta emakumearen rola higiezin mantentzeko asmoz gizartean zabaldutako mito, tabu eta uste orokortuak aztertu eta salatu zituzten:

*“Que las mujeres no nos masturbamos y que la que lo hace es una especie de ninfómana; Entre las mujeres no existe la homosexualidad; Las mujeres somos todas frías o por lo menos tenemos menos necesidades que el hombre; Las mujeres sólo podemos amar a un hombre; La menstruación como símbolo de actividad sexual”*⁴⁷.

Halaber, erlijioak, familiak eta hezkuntzak emakumeak ama eta emazte izatera behartzen eta mugatzen zituzten eredu edo modelo erreproduktiboa kritikatzear gain, ustean honen kontrakoa zena, hots, haien aburuz “oker izendatuta liberatzailea” zena auziperatu zuten. Azken honek, “iraultza sexualaren” baitan, bere “betebeharrekin” -maitasun librea, betiereko orgasmoa- emakumeak, prentsan, publizitatean, *destapean* erakutsitako ereduarekin gizonaren plazer objektu bilakatzen zirela ohartarazi zuten topaketako feministek. Honen aurrean, “alineatzailatzaz” zituzten bi eredu edo arau hauek errefusatu, eta inposatutako eredu oro ordezkatzeko zuen sexualitate orokor eta libre bat aldarrikatu zuten⁴⁸. Emakumeak izaki sexualki autonomoak ziren heinean,

⁴⁶ Lambroa, “Aborto”, in *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II*, (1977), 23.

⁴⁷ “Sexualidad femenina”, in *Euskadiko...* 9.

⁴⁸ *Ibidem*, 9-10.

sexualitate librepean, haien gorputzaren gaineko askatasun osoa bermatu behar zela azaldu zuten. Sexualitatea modu anitzetan asetzeko edo betetzeko bulkada bezala definitu zuten: *“un impulso, es una fuerza vital que nos lleva a satisfacerla (...) se manifiesta en actividades múltiples; masturbación, heterosexualidad y homosexualidad, (...) que no son más que tres maneras de satisfacer un mismo impulso”*⁴⁹.

Gutxi balitz, emakumeen sexu-atseginerako zirriketa organo nagusia klitoria -askorentzat ezezagun handia- zela jakinaraztearekin batera, emakumeen gozamina ernalketarekin zuzenean harremanduta ez zegoela, ala egon ez zitekeen praktika bat zela aditzera eman zuten. Esandakoari, benetako askatasun sexuala gizonaren atseginean soilik oinarritzen ez zenean, “sortzeari” lotuta ez zegoenean eta orientazio sexuala -heterosexual, bisexual eta homosexual- libreki aukera zitezkeen gizartea eraikitzean lortuko zutela gehitu zioten⁵⁰.

Emakumeen masturbazio ezaren mitoa deuseztatzeko asmoz, topaketan masturbazioari eskainitako atalean, *“Zein adinetan eta norekin ezagutu zenuen masturbazioa?Eta zergatik hasi ginen eta noiz eta zergatik egiten dugu?”* galderak burutuz, emakume ezberdinen esperientziak bildu eta amankomunean jarri zituzten. Gauzak honela, bekatuaren, kulparen eta jarduera osagarri bat izatearen ustearen orokortuaren aurrean, masturbazioa autoezagutzarako, autoesploraziorako, eta autoplazer nahiz dibertsiorako tresna edo jarduera baliogarri moduan aurkeztu zuten⁵¹.

Honekin batera, heterosexualitatea emakumeentzako aukera sexual bakarra izatea ere salatu zuten. Izan ere, heterosexualitatea gizartean ordura arte onartzen eta aitortzen zen jarduera sexual bakar moduan azaldu zuten, non tradizionalki helburua ugalketa zen, eta zakil-alu eskemarenpean antolatzen zen. Azken hau gaitzetsiz, emakumeei egotzitako frigidotasunaren estigmaren jatorria emakumeei ezarritako sexualitatean aurkako jarreran, hots, pasibotasunaren eta menpekotasunaren aurrean hartutako jarreran oinarritzen dela adierazi zutelarik. Emakumeak izatez frigidoak zirenean uste ustela irauli zuten, botere eta dominazio sinbolo baten aurrean zeudela esanez. Aitzitik,

⁴⁹ “Sexualidad”, in *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II*, (1977), 11.

⁵⁰ Ibidem, 13-14.

⁵¹ “Masturbación/Masturbaketa”, in *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II*, (1977), 17-18.

bakoitzaren nahimenean zegoen espresioa aukeratzearen alde zeuden heinean, heterosexualitatea aukera moduan aldarrikatu zuten, betiere *“No podemos prestarnos a una heterosexualidad a cualquier precio, sino a una heterosexualidad que no tenga precio”*, hots, harreman aske eta ez menpeko bilakatu zedin borroka eginez⁵².

Lerro batzuk lehenago aipatu dugun moduan, topaketako feministentzat benetako sexu-askatasuna lortzearen baitan orientazio sexuala libreki hautatzeko askatasuna zegoen. Hau da, ordura arte araua zen heterosexualitateaz gain, bisexualitatea eta homosexualitatea onartu eta aitortzen zirela azpimarratu zuten. Topaketako adierazpen hau mugari hartuta, gure lanaren ildoari jarraiki, hurrengo atalean emakume homosexualei, lesbianeiei, eskainitako pasarteaz aztertuko dugu.

3.2. Lesbianismoa

*“Dentro del grupo más oprimido, las mujeres, existen todavía quienes todavía lo son más en razón de que ni siquiera tenemos el derecho a existir. Las lesbianas no existimos”*⁵³.

Ikusi dugun moduan, lesbianismoa frankismoan sistematikoki ukatzen zen errealitate bat izan zen. Gizonezkoen homosexualitatea, “Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren legearen” bidez jazarria eta pertsekutatua nahiz sozialki estigmatizatuta egonda ere, jazarpen hura publiko eta begi-bistakoa zen heinean, haien existentziaren aurka egonda ere, aldi berean, existitzeko, izendatzeko aukera aitortzen zitzaienten, eta beraz, diktadura ostean, identifikatutako jazarpen baten aurrean altxatzeko zilegitasuna ere bai⁵⁴.

Bestetik, emakume lesbianekiko hartutako jarrera hutsaltze edo ukaziora mugatu zen. Gutxieste horrek ordea, araua edo jazarpena ekiditeko “erraztasuna” bultzatuta ere,

⁵² “Sexualidad”, in *Euskadiko...* 11-13.

⁵³ Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak I, 17.

⁵⁴ Dolores Juliano eta Raquel Osborne, “Prólogo: Las estrategias de la negación...”, 16.

estigmak iraultzeko gaitasuna ukatu zuen. Nola hitz egin, nola borrokatu, existitzen ez zen zerbaiten inguruan?

Gauzak honela, gizartearen iruditerian lesbianekiko zegoen hutsune, iluntasun edo ezerez horretatik abiatuta, feministek haien aukera ikusgai egin zuten.

Leioan ospatutako topaketa hauetako Sexualitatea jardunaldiaren baitan, emakume mugimenduak bultzatuta, Bizkaiko Emakume Asanbladako Homosexualitate taldeak lesbianismoari atal bat eskaini zion. Bertan, lesbianismoa aukera bezala errebindikatu, haren ibilbide historikoaren berri eman, eta mugimendu feministak lesbianismoarekin zuen harremana azaldu zuten⁵⁵.

*“Abrir el debate, que las ideas circulen y dejen de ser una mera información individual y anecdótica (...) para pasar a analizar y articular lo descubierto con una práctica de lucha personal y social”*⁵⁶. Hau da, emakume lesbianak ordura arte izendatuak izan ez ziren esperientziak partekatzetik, identifikatzetik, borroka pertsonal eta kolektiboa bultzatzeko nahimenetik abiatuta, homosexualitatea sexu bereko kideen artean ematen zen harreman afektibo-sexuala zela aditzera eman zuten, gizonen artean ez ezik, emakumeen artean ere naturalki gertatzen zena.

Honen ildo jarraituz, lesbianismoak sufritutako ukazioa eta estigma salatu zuten, emakumeen sexualitate ororen ukazioaren ondorio zuzena zela esanez: *Si las mujeres no tenemos necesidades sexuales hacia los hombres ¿Cómo se nos va a ocurrir tenerlas hacia las mujeres? (...) simple negación, a nadie se le ocurre que dos mujeres puedan amarse*⁵⁷. Feministek emakumearen gorpua gorputz sexual moduan ulertzen zutenez, eta edozein adierazpen sexual aldarrikatzearen alde zeudelarik, emakumearen homosexualitatearen, lesbianismoaren alde posizionatu ziren⁵⁸.

⁵⁵ Azken hau, lesbianismoak eta mugimendu feministak izandako harremana hurrengo atalean sakonkiago jorratuko dugu. Ikusi 24 or.

⁵⁶ Grupo de Homosexualidad de la A. M. Vizcaya, “Introducción” in *Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak II*, (1977) 15.

⁵⁷ “Sexualidad” in *Euskadiko...* 11.

⁵⁸ Idem.

Frankismoan ez ezik, lesbianekiko ukazio eta baztertze hau historikoki orokorra izan zela argitara ekartzeko asmoz, historian atzera egin zuten Antzinateko Greziara heldu arte.

Hala, duela 2.000 urte baino gehiago existitu zen Sapho emakume idazle eta poetaren berri eman zuten, zeinak emakumeak instruitzeaz gain, haiekin sexu-harremanak izaten zituen⁵⁹. Luz Sanfeliú-ren hitzetan: “*la cultura griega de los siglos VII-VI a.c. aceptó como natural la existencia de relaciones homoeróticas entre mujeres (...) tras su muerte [de Sapho] autores como Ovidio la tacharon de lascivia en grado sumo*”⁶⁰. Azken honen bidetik, Luz Sanfeliuk dio Grezia klasikotik aurrera, non emakumeen izatea erreprodukziora bideratu zen, naturaren aurkako jarduera kontsideratzen hasi ziren emakumeen arteko harremanak, “*tribadak*” -basati, geldiezin eta arriskutsuak-.

Aldi historiko hartatik at, XX. mendeko emakume idazle eta artistak agertu arte -zeinak lesbianismoa, zuzenean edo zeharka adierazi zuten- Historiak maitasun eredu hau nahita errefusatu eta inoiz izendatu ez zuela salatu zuten. Haien hitzetan, Historia modu burutsu eta hilkor batean emakumeen arteko desira ukatzen saiatu zela esanez “*no olvidemos quién ha escrito la Historia*”⁶¹. Historialariei ez ezik, zientifikoei, hots, psikiatra, psikologo eta psikoanalistei kritika egin zieten homosexualitate taldeko emakumeek. Zientifikoek, lesbianen inguruan hitz egitekotan, edo teorizatzeotan haien ikuspuntutik egiten zutela salatu zuten, lesbianeiei hitz egiten utzi gabe⁶².

Ezin da ahantzi zientzia heteronormatibitatea inposatzeko tresna eraginkorra izan zela. XIX. mende amaieratik, eta XX. mendean batez ere, mediku nahiz sexologoak -Gregorio Marañón kasu- emakume ereduaren inguruan disertazioak, ikerketak burutzen hasi ziren. Hala, lesbianek zuten emantzipazio desira, eta ordenaren subertsio hura patologiak zirela ondorioztatu zuten, gaixotasunak, “*invertidas*”. Are gehiago, sexologo nahiz psikologoek ustetan, emakumeentzat desagokiak ziren gizonen askatasun eta

⁵⁹ Grupo... “Historia de la homosexualidad femenina (lesbianismo)” in *Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak II*, (1977) 15.

⁶⁰ Luz Sanfeliú., “*Escrito en el cuerpo. Sexualidades femeninas al margen de la norma heterosexual*”, *Arenal* 14, 1.zkb. (2007), esteka: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2998916> (2019ko maiatzaren lehen kontsultatua).

⁶¹ Grupo... “Introducción”, 15.

⁶² Grupo... “Historia de la homosexualidad femenina (lesbianismo), in *Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak II*, (1977) 15.

pribilegioak irrikatzen zituztenez, lesbianak ez zuten emakume izan nahi, edo ez ziren emakume “osoak”⁶³.

Argudio hauei aurka egitearekin batera gizonak emakumeekiko zuten jarrera “*nos consideran seres inferiores sin un deseo propio, sin vida propia, castradas, incapaces de salir de su primicia, de su superioridad*” salatu zuten. Era berean, egitura patriarkalaren heteronormatibitateari kritika egin zioten, hots, gizon eta emakumeen arteko harremanen inposizioari. Taldekideek, feministentzat tendentzia naturala zen lesbianismoa, patriarkatuak naturaz aurkako desbideraketa aberrante bat zenaren ideia inposatzen zuela gaztigatu zuten⁶⁴.

Lesbianismoa baliozko alternatiba zela aurkezteko, argudio ezberdinak aurkeztu zituzten. Lehenik, lesbianismoa, berdinen arteko harremanean oinarritzen zela; hots, taldekideen ustez, penetrazio egon ezean, ez zen indarkeriarik existitzen, ezta botere-harreman zapaltzailerik ere ez. Bestetik, berdinen, hau da, emakumeen arteko harremana zenez, sistema matxistako emakumearen rola, menpekotasuna, sumisioa, posesioa... pertsonifikatzea zailagoa zen, eta haiek gainditzea errazagoa beraz⁶⁵.

Bizkaiko Emakume Asanbladako Homosexualitate taldeak sistema patriarkalak lesbianismoa ukatzearen arrazoiak zerrendatu zituzten. Frankismoan lesbianak ukatzearen arrazoiak jarraiki, lesbianismoak sistema patriarkala mehatxatzen zuela adierazi zuten; emazte, ama eta haur-hezitzaile eskeman oinarritzen zuten familiaren ardatza suntsitzen zuen eta. Horrek, gizonarekiko independentzia bat suposatzen zuen, eta beraz, haien nagusitasuna, hegemonia zalantzan jartzen zuen: bere kabuz bizitzeko gaitasuna, eta sexualitate propioaren autoafirmazioa ematen zela adierazi zuten. Pasibotasun, sarpenaren nahitaezko behar, eta zakil-alu eskemen aurrean, aktibitate sexual ezberdinak existitzen zirela argudiatu zuten, lesbianak sexualki aktiboak zirela aldarrikatuz⁶⁶.

⁶³ Maria Angeles Goichoechea Gaona, *et al.*, *Chicas que entienden. In-visibility lesbiana*, (Bartzelona-Madril: Egales, 2015), 104.

⁶⁴ Grupo... “Lesbianismo: alternativa válida” in *Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak II*, (1977), 15.

⁶⁵ Idem.

⁶⁶ Ibidem, 16.

Bestalde, harreman heterosexualak burutzen zituzten emakumeen aurrean, lesbianek antisorgailuetatik ihes egiteko aukera zutela esan zuten, hau da, emakumeen gorputzaren inguruan sortutako sistema medikotik kanpo zaudela, baita harreman heterosexualan agertzen ziren infekzioetatik salbu ere bai (gaixotasun benereotatik kanpo). Ordura arte etengabe zalantzan jarri izan zen emakumeen arteko elkartasuna, solidaritatea lesbianismoak ahalbidetzen zuela jakinarazteaz gain, lesbianismoa emakumeek sufritzen zuten presio soziali -ezkontza, amatasuna...- irteera emateko bide bat suposatzen zuela ere bai. Funtsean, lesbianismoa ezarritako ordena zalantzan jartzen zuen errealitate bat zela aldarrikatu zen⁶⁷.

Arestian aurreratu dugun moduan, topaketan lesbianismoak mugimendu feministarekin izan beharreko harremanaz ere mintzatu ziren. Hala izanik, hurrengo azpi-ataleko ildoan bertan zer mintzatu, ondorioztatu eta horren inguruan sortutako erreakzioak azaltzean zentratuko dugu.

3.3. Lesbianismoa eta feminismoa: (des)adostasunak

Lehenago aipatu dugun moduan, emakumeen askapenerako mugimenduan, hots, feminismo berrian, korrante eta ikuspuntu ugari bildu eta uztartu ziren. Pluraltasun hau medio, barne-eztabaidak eta ikuspuntu ezberdinak sortu ziren, lesbianismoa horietako bat izan zelarik. Hala, jarrera kontrajarriak eman ziren; batzuk lesbianismoa feminismitik banandu nahi zuten bitartean, beste batzuek lesbianismoa mugimenduaren ardatza bilakatu nahi zuten “benetako” feministek gizonei uko egin behar ziotela argudiatuz. Bestetik, lesbiana asko ez ziren mugimendu feministarekin guztiz identifikatu, eta azken haiek esfortzua lesbianen garapena, indarra eta ikusgarritasuna bultzatzera bideratu zuten⁶⁸.

⁶⁷ Idem.

⁶⁸ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...*, 200.

Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketetan, eztabaida hau ez zen agendatik kanpo gelditu. Bertan, lesbianismoa errebindikatzeaz gain, mugimendu feministarekin zuen harremanaz, loturaz jardun ziren.

Emakumeen asanbladako homosexualitate taldeak adierazi zuenari jarraiki, “*Desgraciadamente no se ha empezado a dar hasta ahora la comprensión de la estrecha vinculación que debe unir a los movimientos feministas con los movimientos de lesbianas*”⁶⁹, mugimendu feministaren eta lesbianen mugimenduaren loturaren, bata bestearen eraginaren beharra nabarmendu zuten. Haien ustetan, zoritxar hura, hau da, elkar ulertze falta hura bi arrazoik azaltzen zuen. Alde batetik, emakume mugimenduak homosexualitatea praktika natural moduan onartzeko zailtasuna, eta bestetik, emakumeentzako baliozko alternatiba sexual bezala aitortzeko izandako beldurra, mesfidantza. Are gehiago, eskema patriarkaletatik, gizartearentzat “norma” edo eredu izan zenetik ateratzeak sortzen zuela ulermen falta hori, defendatu zuten⁷⁰.

Errezelo horren adierazle Betty Friedan, “*La mística de la feminidad*”-en (1963) idazlea izan zen. Bertan, Friedanek emakumeen askapenerako mugimendu honetan lesbianak egoteak haien kausa kaltetu zezakeela azpimarratu zuen⁷¹. Honen harira, bai Empar Pinedak nahiz Raquel Osbornek nabarmentzen dute, orokorrean, mugimendu feministaren baitan, publikoki feminismoa lesbianismoarekin ez nahasteko edo identifikatzeko nahimena gailendu zela, “*el que dirán*”. Horren ondorioz, kasu batzuetan, zuzenean ala zeharka borroka feministan lesbianismoa aintzat hartu ere ez zela diote⁷².

Dena dela, Euskadiko Emakumeen Topaketa honetan, lesbianak emakumeen artean kide esplotatu eta zapalduenak zirela hauteman zuten, zeinak, haien ustez, emakumezkoen independentziaren bidea zein zen aurkitzen lagundu zezaketen. Hala, lesbianismoa

⁶⁹ Grupo... “Relación del lesbianismo con los movimientos feministas” in *Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak II*, (1977), 16.

⁷⁰ Idem.

⁷¹ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...*, 198.

⁷² Empar Pineda, “Mi pequeña historia...”, 33 eta Raquel Osborne, “Entre el rosa y el violeta. Lesbianismo, feminismo y el movimiento gai: relato de unos amores”, in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, (koord.) Raquel Platero (Bartzelona: Melusina, 2008), 90.

ulertzeko bi ikuspuntu aurkeztu zituzten. Lehenak, lesbianismoa “*una alternativa sexual entre otras (...) una forma más en las relaciones afectivas y sexuales entre los individuos*” kontsideratzen zuen. Hau da, ikuspegi honen arabera, lesbianismoa emakume bakoitzaren aukera pertsonal eta pribatuan oinarritzen zen. Ideia honi jarraiki, Victoria Sauk, lesbianismo politikoaren korronteko feminista heterosexualak, zioen feminismoak, emakume izatearen baitan, heterosexualen eta lesbianen ezberdintasunak ezabatzen zituela, eta beraz, bakoitzaren aukera sexuala bizitza pribatuko aspektu bat zela⁷³.

Bestalde, bigarren ikuskera lesbianismoa emakumearen autonomia bermatzeko estrategia izatean oinarritzen zen, lesbianismo politikoan alegia. Hau da, homosexualitate taldeko kideen ustetan, emakumearen independentzia sexualak heterosexualitatetik homosexualitateranzko bidea hartuko luke, arestian aipatu ditugun abantailak nahiz oinarri eta sistemak zalantzan jartzen zituen heinean. Hala, emakumeak zapaltzen dituen sistema, egitura eta sexuaren aurrean, emakumeen arteko batasun eta independentzia lortuko zela defenditu zuten⁷⁴. Victoria Sauk hau biziki defendatu zuen, lesbianismoa “*una auténtica subversión respecto al sistema*” zela esanez eta beraz “*clarísimo contenido político y revolucionario*” biltzen zuela baieztatuz. Funtsean, lesbianismoa edozein emakumek bere egin dezakeen posizio politikotzat hartu zuen Sauk⁷⁵.

Topaketa hauetan aurkeztu ziren ikuspuntuaren aurka, besteak-beste Gretel Ammann filosofo eta aktibista donostiarra gailendu zen. Honek, Monique Wittig diferentziaren feministaren eragina jaso zuenak, feminismoaren moral berri hura kritikatu zuen. Haren ustea jarraiki, lesbianeiei okerki “feminista onenaren” leku gorena egokitu zion mugimendu feministak. Hala, lesbianismo politikoaren aurka agertu zen, eta lesbianen identitate propioa errebindikatu zuen, ezberdintasunean oinarritu zelarik⁷⁶. Debate edo ikuspuntu hauek, beste askorekin batera, feminismoaren eta lesbianismoaren hurrengo urteetako ibilbide elkartu, paralelo, ala kontrakoaren ardatzak izan ziren.

⁷³ Raquel Osborne, “Entre el rosa y el violeta...”, 90.

⁷⁴ Grupo... “Relaciones entre...”, 16.

⁷⁵ Raquel Osborne, “Entre el rosa y el violeta...”, 90-91.

⁷⁶ Ibidem, 90.

Euskal Herrian, formalki, Topaketatan lesbianen inguruan jorratutakoaren erreakzioak, 1979an heldu ziren. Emakumearen Sexual Askatasunerako Mugimenduak (ESAM) lesbianismoari buruzko txosten bat argitaratu zuten: *Dossier lesbianismo*. ESAM urte hartan bertan sortu zen, Bizkaiko Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendutik (EHGAM) bananduta. Euskal Herri mailan, hau da identifikatu den emakume lesbianen lehen talde antolatua⁷⁷.

Lesbianismoaren eta feminismoaren harremanari dagokionean, lehenik txostengileek mugimendu feministak izandako papera azpimarratu zuten. Patriarkatuaren inguruan eta emakumeek esparru guztietan sufritzen zuten zapalkuntzari buruz teorizatzen hasi izatea eskertuz: “*Ha sido el movimiento feminista quien (...) ha iniciado la lucha por la liberación de la mujer, sin la cual no habría podido siquiera plantearse el tema de las relaciones entre mujeres*”⁷⁸.

Gainera, mugimendu feministak, emakumeen askapenerako borrokan, emakume lesbianen alde ere borroka bikoitza egiten zuela ohartarazi zuten. Lesbianak, emakume ziren heinean, haien aldarrikapenak biltzen zituzten, eta bestetik, askatasun sexualaren aldeko borrokan, teoriarik behintzat, lesbianismoa aukera sexual aske moduan aitortzen zuten⁷⁹. Aitzitik, ESAMeko lesbianek mugimendu feministak izandako ibilbide heterosexuala nabarmendu zuten, “*la inmensa mayoría de sus reivindicaciones, de sus campañas, de gran parte de su lucha está enfocada a través de la heterosexualidad y para ella en exclusiva*”⁸⁰. Raquel Osbornek eta Empar Pinedak ere honekin bat egiten dute, perspektiba sexual berriak iraultzaileak izanda ere, marko heterosexualera mugatzen zirenen sententzia orokortua zegoela adieraziz⁸¹.

⁷⁷ Amparo Villar Sáenz, “¿Lesbiana? Encantada, ¡¡es un placer!!: Representación de las lesbianas en Euskal Herria a través de los grupos organizados”, in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, (koord.) Raquel Platero (Bartzelona: Melusina, 2008), 66.

⁷⁸ ESAM, *Dossier Lesbianismo*, (Bilbo, 1979), 26.

⁷⁹ Idem.

⁸⁰ Ibidem, 27.

⁸¹ Empar Pineda “Mi pequeña historia...”, 34. eta Raquel Osborne “Entre el rosa y el violeta...”, 92.

Azkenik, topaketetan burututako lesbianismoaren mitifikazioa, idealizazioa kritikatu zuten: “*Relación totalmente igualitaria, libre de toda concepción machista y del macho, relación superadora de todo tipo de trabas individuales, de la pareja,...*”. Uste honen aurka, lesbiana izateak automatikoki gizarte patriarkalaren kontradikzio guztietatik askatzea suposatzen ez zuela argitu zuten. Baina haien harremanak berdintasunean eta askatasunean oinarritzen saiatzen ari zirela, eskema eta uste matxistak gainditzeko: “... *en esa lucha estamos*”⁸².

Txosten hau argitaratu zenetik 40 urte igarota, oraindik ere, bertako aldarrikapenak bizirik daude, betetzeke daude; baina lesbianen agerikotasunaren borrokak indartsu, geldiezin dirau.

4. Ondorioak

Frankismoak, espainiar eta euskal gizartean emakumearen eredu tradizionala - “Etxeko Aingerua” edo “Ezkondur Perfektua”- barneratu zuen. Eliza Katolikoak bideratutako moralaren eta harekin batera Falangeko Emakumeen Sekzioak kontrolatutako hezkuntzaren bitartez, ezkontza, amatasuna eta domestizitatea emakume moduan errealizatzeko gailurrak edo funtsak bilakatu ziren. Hala, “moralaren gordetzaile” ziren emakume esaneko eta gizonen menpeko hauei, autonomia sexuala ukatu zitzaien. Emakumeen sexualitatea ia oximorona bilakatu zen, hots, sexua gizonen kontua zen heinean, sexualitatea eta emakumea ez ziren kontzeptu edo errealitate bateragarritzat hartzen, nolabaiteko kontraesana adierazten zuten. Funtsean, senar-emazteen arteko ugalkortasunetik at, emakume heterosexualen sexualitate oro arbuiatu eta estigmatizatu egiten zen, hainbatetan legez jazartzeaz gain (*delitos femeninos*), *promiscuas*, *mujeres de mala fama*, *mujeres caídas*, bezalako etiketa peioratiboak ezartzen zitzaizkielarik.

Emakume lesbianek ezarritako ordena sozial eta sexualaren subertsio sakonagoa suposatzen zutenez, hau da, gizonen menpekotasunetik at eta ugalkortasunaz haratago doan inizatiba sexual aktiboa erakusten zutenez, erregimena lesbianen izatea ukatzera,

⁸² ESAM, *Dossier...*, 27.

gutxiestera mugatu zen. Milaka gizonezko homosexual “*Ley de Vagos y Maleantes*” eta “Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren legea”-ren atzaparretan erori ziren bitartean, soilik emakume batek nozitu zituen lege horien eraginak. Begoña Pernasek dioen moduan:

*“No podía prohibirse ni perseguirse porque era inconcebible. (...) La extraña libertad que a menudo caracteriza las relaciones entre mujeres es la misma que marca todo lo que pasa entre los inferiores: al no ser socialmente importante, escapa de las normas, pero carece de capacidad para subvertirlas”*⁸³.

Beraz, Raquel Osbornek dioenarekin bat eginez, ondorioztatu dezakegu lesbianen memoria historikoaren baitan hutsune bat egotea ez da kasualitatea⁸⁴. Emakumeen sexualitatea nahiz lesbianismoa ukatzeak, eta begi bistako jazarpen bat ez egoteak, ikusezintasuna eta indibidualtasuna bultzatzearekin batera, kohesioa, batasuna, identitate baten eraketa zaildu zuen. Beldurra, estigma, lotsa, zalantza, egun frankismoko urteak bizi izan zituzten emakume askoren baitan dirau.

Bestalde, ezerezetik, ikusezintasunetik, klandestinitatetik, etxe-zulotik irteteko, bigarren boladako feminismoa funtsezko elementua izan zen emakume lesbianentzat. Bigarren boladako feministek, “Pertsonala Politikoa da” goiburua zutarri izanik, bizitzako aspektu guztietan erreproduzitzen zen sistema patriarkalaren iraultzeari ekin zioten, emakumearen askapena lortzeko asmoarekin.

Beste aldarrikapen ugariaren artean, emakumeen gorputzaren autonomia sexual aske, autonomo eta buruaskia borrokaren ildo izan zuten. Hala, ordura arte nagusi izan ziren sexualitate eredu eraldatzea bideratu zuten. Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketetan hauteman daitekeen moduan, eredu sexual berriaren baitan, heterosexualitate eraberrituaz gain, lesbianismoa errebindikatu zuten feministek estreinakoz. Lesbiana askorentzat, ordura arte sufritutako ukazioa atzean uzteak, eta aintzetaspena lortzeak,

⁸³ Begoña Pernas, “Voces del lesbianismo en Vindicación Femenina” in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, (ed.) Raquel Osborne (Madrid: Fundamentos, 2012), 402.

⁸⁴ Raquel Osborne, “Introducción”, 9.

izugarritzko iraultza suposatu zuen. Feminismoak izatea onartu zion lesbianismoari, beraz hasierako bulkada hori ukazina litzateke.

Topaketetan argi gelditu zen moduan, feministek bultzatutako sexualitate eredu horretan, lesbianismoa baliozko aukera sexual moduan aurkezteaz gain, emakumeen autonomiarako tresna politiko gisa azaldu zuten.

Hala ere, mugimendu feministak topaketa hauetan adierazitako zenbait baieztapen lesbianen kritika jaso zuten, hala nola, ESAMen *Dossier Lesbianismo* delakoan: lesbianismoaren inguruko ez-jakintasuna, idealizazioa... Gutxi balitz, mugimendu feministaren ibilbide heterosexual markatua azpimarratu zuten, lesbiana askok baztertuak edo bigarren mailako aldarrikapen gisa sentitu ziren, haien kausa lehenetsi ez zela baieztatuz. Erantzuki hauek, besteak beste, feminismoaren eta lesbianismoak hurrengo hamarkadetan izango zuten harreman konplexuaren abiapuntua izan ziren, elkartasuna edo banantzea markatuko zutenak.

Dena den, bere argi eta bere ilunekin, feminismoak lesbianismoari egindako ekarpena gutxietsi ezin daitekeen zerbait da. Lesbianismoa feminismoaren agendan lehenetsuzko kontua izatea konpondu gabeko auzia bada ere, mugimenduak sorreratik aintzat hartu dituela esan dezakegu, Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak adierazle garbia direlarik. Bertako testuingurua ulertzea ezinbestekoa da; hots, nondik gentozen ulertu ezean, non gauden eta beraz nora goazen ulertzea ezinezkoa zaigu.

Lesbianek frankismoko ezerezaren, ukapenaren ostean, etsaitasunezko eremu, gizarte eta uste orokortu bati aurre egin behar izan zioten. Feminismoak, borroka geldiezin hartan, lesbianeiei besoa luzatu eta elkartasunaren eta batasunaren bidez, izateko aukera eman zieten. Baietza sortzen hasi ziren elkarrekin.

Bananduta, ala elkaturik, baietza sortzea bera, lesbianen erronka garrantzitsua da oraindik ere. Hala, lesbianen ikusgaitasunaren aldeko borrokan, memoria historikoaren berreskurapena funtsezko elementua izanen da. *“Ez dadila haria eten...”*⁸⁵

⁸⁵ Berri Txarrak, “Beude”, *Infrasoinuak*, 2017.

5. Bibliografía

- Albarracín Soto, Matilde. “Libreras y tebeos: las voces de las lesbianas mayores” in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Raquel Platero-k koordinatuta, 191-212. Bartzelona: Melusina, 2008.
- Berri Txarrak, “Beude”, *Infrasoinuak*, 2017.
- Bohigas Gavilanes, Francisca. “Orientación Pedagógica”, *Consigna, Revista pedagógica de la Sección Femenina de F.E.T y de las J.O.N.S*, 22 zbk. (1942 urtarrila).
- Beatriz Celaya, “El discurso médico del franquismo: persistencia de un modelo sexualizado de mujer” in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, Raquel Osborne-k editatua, 193-216. Madril: Fundamentos, 2012.
- Emakumearen Sexual Askatasunerako Mugimendua. *Dossier Lesbianismo*. Bilbo, 1979.
- Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak. Leioa, 1977.
- Goicoechea Gaona, María Ángeles, Fernández Guerrero, Olaya, Clavo Sebastián, María José eta Álvarez Terán, Remedios. *Chicas que entienden. In-visibilidad lesbiana*. Bartzelona-Madril: Egales, 2015.
- Juliano, Dolores. “Tiempo de Cuaresma. Modelos de sexualidad femenina bajo el Franquismo”, in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, Raquel Osborne-k editatua, 35-47. Madril: Fundamentos, 2012.
- Juliano, Dolores eta Osborne, Raquel. “Prólogo: Las estrategias de la negación. Desentenderse de las entendidas”, in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Raquel Platero-k koordinatuta, 7-16. Bartzelona: Melusina, 2008.
- Lete Xabier, “Izarren hautsa”, *Kantatzera noazu*, 1976.
- López Romo, Raúl. *Del gueto a la calle. El movimiento gay y lesbiano en el País Vasco y Navarra, 1975-1983*. Donostia-San Sebastián: Tercera Prensa, D.L., 2008.

- Monferrer, Jordi M. “Serrano Vicéns: el Kinsey español” in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, Raquel Osborne-k editatua, 217-232. Madril: Fundamentos, 2012.
- Mujika, Inmaculada, Sanchez, José Ignacio, Bilbao, Iñigo, eta Villar, Amparo. *Begirada ausartak. Gay eta Lesbianen bizitza eta maitasun kontaktak Frankismoan eta Trantsizioan Euskal Herrian*. Bilbo: Aldarte, 2014.
- Millet, Kate. *Política Sexual*. Madril: Cátedra, 1995 [1970].
- Nash, Mary. *Mujeres en el Mundo. Historia, retos y movimientos*. Madril: Alianza, 2004.
- Osborne, Raquel (ed.). *Mujeres bajo sospecha: (memoria y sexualidad, 1930-1980)*. Madril: Fundamentos, 2012.
- “Entre el rosa y el violeta. Lesbianismo, feminismo y el movimiento gai: relato de unos amores difíciles”, in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Raquel Platero-k koordinatuta, 85-105. Bartzelona: Melusina, 2008.
- Pernas, Begoña. “Voces del lesbianismo en Vindicación Femenina” in *Mujeres bajo sospecha (Memoria y sexualidad, 1930-1980)*, Raquel Osborne-k editatua, 397-407. Madril: Fundamentos, 2012.
- Pichardo, José Ignacio. “Lesbianas o no” in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Raquel Platero-k koordinatua, 119-138. Bartzelona: Melusina, 2008.
- Pineda, Empar. “Mi pequeña historia sobre el lesbianismo organizado en el movimiento feminista de nuestro país” in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Raquel Platero-k koordinatuta, 31-59. Bartzelona: Melusina, 2008.
- Platero, Raquel (koord.). *Lesbianas. Discursos y representaciones*. Bartzelona: Melusina, 2008.
- Sanfeliu, Luz. “Escrito en el cuerpo. Sexualidades femeninas al margen de la norma heterosexual”, *Arenal* 14, 1.zkb. (2007)., esteka: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2998916> (2019ko maiatzaren 1ean kontsultatua).

Sección Femenina de la Falange Española y de las JONS, *Economía doméstica para bachillerato y magisterio*, 1958.

Villar Sáenz, Amparo. “¿Lesbiana? Encantada, ¡¡es un placer!!: Representación de las lesbianas en Euskal Herria a través de los grupos organizados”, in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Raquel Platero-k koordinatua, 61-84. Bartzelona: Melusina, 2008.